

ERABAKIA, 2021eko IRAILAREN 16koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, EGUNERATZEKO 2020ko ABENDUAREN 22ko ERABAKIA, HORREN BIDEZ BEHIN-BEHINERAKO EGOKITU BAITZIREN 2021. URTERAKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN 2020ko ORDUTEGI, OPOR ETA BAIMENEI BURUZKO ZIRKULARREKO ATAL BATZUK.

COVID-19ak eragindako pandemiak eragin izugarri handia izan du arlo guztietan, eta unibertsitatean aldaketa handiak egin behar izan ditugu gure jardueraren alderdi guztietan, oso denbora epe laburrean.

Zenbateko iraupena izango duen nekez jakin daitekeen “normaltasun berri” honetan, nahitaezkoa zen osasun agintariek ezarritako prebentzio eta babes neurriak betetzea, eta, hori dela eta, hainbat jarduera ildo diseinatu genituen neurri horiekin bateragarria eta errespetuzkoa den jarduera presentziala ahalik eta gehien mantentzeko, ezin baitugu ahaztu Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, batez ere, unibertsitate presentzial bat dela.

Presentziasuna printzipio orokorra da, betiere, osasun krisiaren bilakaerak horretako bide ematen badu. Ezinezkoa denean bermatzea pertsonen artean 1,5 metroko distantzia gorde ahal dela, langileak arrisku mailarako egokiak diren babes neurriak izango ditu.

Eskuragarri dauden datuek adierazten dutenez, COVID-19aren intzidentzia gizarte mailako orokorra baino txikiagoa da UPV/EHU. Horrek agerian uzten du neurri egokiak hartu direla COVID-19aren aurkako prebentzioaren oinarritzko printzipio hauek oinarri hartuta: kontaktuak mugatzea; prebentzio pertsonaleko neurriak; garbiketa eta aireztapena; kasuen kudeaketa. Neurri horiek ezartzeko beharrezkoak diren zeharkako beste ekintza batzuez gain.

Azken hilabeteotan, birusaren intzidentzia tasak behera egin duen heinean, leundu egin dira Euskadiko Babes Zibileko Planaren Aholku Batzordeak (LABI) orain arte onartutako murrizketak, eta litekeena da datozen hilabeteetan neurriak gehiago malgutzea, egungo joerak ildo beretik jarraitzen badu. Era berean, berretsi egin da Euskadiko txertaketa prozesua erritmo onean doala. Ildo horretan, txertaketaren bilakaera eta tasak oso handiak dira adin talde gehienetan, eta erritmo onean ari dira aurrera egiten 12 eta 30 urte bitartekoen artean.

Prebentzioko neurri murriztaileak, oro har, arintzen ari dira pixkanaka, txertaketa eta gainerako neurriak pertsonen osasunerako eta epidemiari eusteko zereginen eraginkorrak direla erakutsi duten heinean, eta, betiere, ez da ahaztu behar elementu zuzentzaile gisa (bai neurriak indartzeko, bai arintzeko), lan arlorako, osasun arlotik ezartzen edo kentzen diren aholku eta betebeharrak ditugula, erakunde eskudunek administrazio arlorako zehaztutakoak, bai orokorrak, bai zehatzak. Gaur egun, horiek guztiak administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldiari buruzko egokitzapen honen berma dira.

2020ko abenduaren 22ko Erabakiak (administrazio eta zerbitzuetako langileen 2020ko ordutegi, opor eta baimenei buruzko zirkularra 2021 urterako luzatzen

duenak), xedapen gehigarrietatik hirugarrenean, dio: *COVID-19aren bilakaerak eragiten duen egoera aldakorra denez, erabaki hau eguneratu egingo da, egokitzeko, beharrezkoa izanez gero, osasun, lan eta hezkuntza arloetako agintariek ezarriko dituzten jarraibideetara.*

Pandemiaren ondoriozko salbuespenezko egoeretan langile guztiek egindako lana aitortu eta eskertu behar dugu, bereziki funtsezkotzat jotako unitateetako langileek egindako lana, aurrez aurre etengabe lan egin behar izan baitute.

Edonola ere, egungo baldintzak eta horien bilakaera kontuan hartuta, UPV/EHU lan egiten duten langileek pandemia-egoeran egon aurreko ohiko lanaldi presentzialak betetzera itzul gaitezke, hargatik eragotzi gabe langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio- eta osasun-neurriak hartzea.

Egungo baldintzak eta horien bilakaera ikusita, UPV/EHU lan egiten duten langileak pandemia egoeran egon aurreko ohiko lanaldi presentzialera buelta daitezkeela uste dugu, nahiz eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio eta osasun neurriak hartu beharko diren.

Hori guztia kontuan hartuta, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiak emandako eskumenak erabiliz (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia (2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), gerentzia honek honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- - Lanaldia 2021eko urriaren 4tik aurrera

1.1.- Administrazio eta zerbitzuetako langile guztiak, **2021eko urriaren 4tik** aurrera, pandemia aurreko egoerara bultatuko dira, hau da: pandemiaren aurreko lanaldi eta lan egutegia bete beharko dute. Beraz, indargabe geratuko dira 2020ko abenduaren 22ko erabakiaren bidez ezarritako antolaketa eta lanaldi neurri bereziak.

Bigarrena. - Malgutasuna.

Aurrez aurreko lanaldia egiteko, 10:00ak arteko tartea izango du langileak lantokira sartzeko, eta irteteko ordua atzeratuko egingo du horren arabera eguneko lanaldia bete arte. Horrela egin ahal izango du, betiere, zerbitzua behar bezala betetzen bada eta lanpostuaren ezaugarriek horretarako modua ematen badute. Halaber, bazkaltzeko etenaldia (gutxienez hogeita hamar minutukoa eta gehienez ordu eta erdikoa dena) hartzeko ordutegiaren malgutasuna handitu da, eta 13:00etatik 15:30era izango da.

Hirugarrena. - Ezohiko kontziliazio neurriak

3.1.- Ondoko egoeraren batean dauden administrazio eta zerbitzuetako langileen kasuan, beherago aipatzen diren ezohiko kontziliazio neurriak aplikatuko dira:

- Covid-19aren proban positibo eman duen 14 urtetik beherako baten zaintza izatea edo etxean geratu behar dena berrogeialdia egiteko;
- Covid-19aren proban positibo eman eta etxean egon behar den senitarteko bat (ahaidetasuneko bigarren mailarainokoa, mendekotasun egoeran dagoena eta soldatapeko jarduerarik egiten ez duena) zuzenean zaintzeko ardua izatea, langilearekin bizi delako;

3.2.- Aurreko egoera horietako batean dagoen langileak kontziliazio mota hauetako bat aukeratu ahal izango du:

- ✓ Baimena zerbitzuak modu ez-presentzian emateko, urrutiko lanaren bidez, baldin eta formula hori bateragarria bada bere lanpostuari dagozkion eginkizun eta zereginekin.
- ✓ Ordu-tegi malgutasuna, lanaldiari eta egutegiari buruzko zirkularrean aurreikusitako mugei lotu gabe.
- ✓ Urrutiko lana egiterik ez badago, eta ordu-tegi malgutasuna nahikoa ez bada, langileek araudian ezarritako kontziliazio neurriak erabili ahal izango dituzte, lanaldi murrizketak edo oraindik hartzeko dituzten baimenak eskatuta. Horrelakoetan eraginik gabe geratuko da baimena eskatzeko ezarriko epea.

Soil-soilik, eta betiere gainerako neurri guztiak eraginkorrak ez badira, baimen ordaindu berreskuragarria hartu ahal izango da berrogeialdiak irauten duen bitartean edo zentroa itxia dagoen denboran. Baimen hori berreskuratuko da erabaki honetako 4.1. puntuaren zehazten den moduan.

3.3.- Aurreko ataleko kasuren batean dagoen langileak berehala emango dio egoeraren berri bere nagusi hierarkikoari, eta infopas@ehu.eus helbidera bidaliko du eskaera, kontziliazioaren premia eta modalitatea adieraziz, egiaztagiriak atxikita.

Lehenengo xedapen gehigarria - Egoera bereziak

Osasun neurriak bermatzeko beharrezkoa denean, langileen aparteko egoerak aztertuko dira eta nahitaezkoa izango da Prebentzio Zerbitzuaren txostena.

Eskaria informes.prevencción@ehu.eus helbidera bidali behar da arrazoia azalduta.

Bigarren xedapen gehigarria.- Langile kalteberak

Langileren bat COVID-19arekiko kaltebera bada (hipertentsio arteriala badauka, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, tratamendu aktiboan dagoen minbizia, immunodepresioa eta abar) lanera itzuliko da, baina, alde aurretik, nahitaez, Prebentzio Zerbitzuak txostena egin beharko du

adieraziz egoera klinikoa kontrolatua badaukala; horrelakoetan, betiere, zorrotz gorde beharko ditu babes neurriak.

Prebentzio Zerbitzuak bereziki sentiberak diren langileak dauden ebaluatu beharko du (kasu bakoitza banan-banan aztertuko du, patologiaren eta egin beharreko zereginen arabera), eta, nahitaez, txostena egin beharko du zehaztuta beharrezko prebentzio eta babes neurriak eta lanpostua egokitzeko beharrezko diren neurriak.

Hirugarren xedapen gehigarria. - Indarrean jarraitzen dute erabaki honen bidez aldatu ez diren UPV/EHUko gerenteak 2019ko irailaren 30ean onartutako Erabakiaren atal guztiek, erabaki horren bidez onartu baitzen administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldi, lan orduen kontrol, opor eta baimenei buruzko 2020ko zirkularra.

Laugarren xedapen gehigarria. - COVID-19aren bilakaerak eragiten duen egoera aldakorra denez, erabaki hau eguneratu egingo da, egokitzeko, beharrezkoa izanez gero, osasun, lan eta hezkuntza arloetako agintariek ezarriko dituzten jarraibideetara.

Xedapen indargabetzailea

Erabaki honek indarrrik gabe uzten du 2020ko abenduaren 22ko erabakia.

Leioa, 2021eko irailaren 16a

**Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea**

ERREKURTZOAK: Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, UPV/EHUko iragarki oholetan argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita; edo bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, egun horretatik bertatik kontatzen hasita.

ERANSKINA

Jaiegunak

Egun hauek izango dira jaiegun:

- .Urtarrilaren 1a, Urteberri Eguna
- .Urtarrilaren 6a, Errege Eguna
- .Martxoaren 19a, San Jose Eguna
- .Apirilaren 1a, Ostegun Santua
- .Apirilaren 2a, Ostiral Santua
- .Apirilaren 5a, Pazko Astelehena
- .Maiatzaren 1a, Langileen Eguna
- .Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokundea
- .Urriaren 12a, Pilarreko Ama Birjina
- .Azaroaren 1a, Domu Santu Eguna
- .Abenduaren 6a, Konstituzioaren Eguna
- .Abenduaren 8a, Konstituzioaren Eguna
- .Abenduaren 25a, Eguberri Eguna
- .Urte osoko larunbat eta jaiegunak. Larunbatak jaiegun berreskuratuak dira
- .Campus bakoitzeko jaiegunak:

Araba	.Apirilaren 28a, San Prudentzio osteko astelehena .Abuztuaren 5a, Andre Maria Zuria
Bizkaia	.Uztailaren 31, San Ignazio Loiolakoa .Abuztuaren 27a, Bilboko Aste Nagusiko ostirala
Gipuzkoa	.Donostian: urtarrilaren 20a, San Sebastian .Eibarren: ekainaren 24a, San Joan .Uztailaren 31, San Ignazio Loiolakoa

.UPV/EHU itxita egongo da 2020ko abenduaren 24an eta 31n.

.Jaiegun izango dira, halaber, ikastegi bakoitzeko eta Zerbitzu Zentraletako jaiegunak.

Salbuezpenez, behar bezala egiaztatutako egoeretan, Gerentziak agindu dezake jaiegunean lan egitea; hori gertatuz gero, langile horiei jaiegun batekin konpentsatuko zaie egun hori.

Ikastegietako jai patronaleko data eta irekitze- eta itxisera-ordutegia behin ezagututa, informazio izaeraz argitaratuko da.

Udako lanaldia: 2021eko maiatzaren 31tik irailaren 10era bitartean, bi egun horiek barne.

Udaberriko eta neguko txandetako lanaldiak

Bi txanda berreskuratu daude, bata udaberrian eta bestea neguan.

.Udaberrian:

1. txanda: 2021eko martxoaren 29, 30 eta 31
2. txanda: 2021eko apirilaren 6, 7 eta 8a

.Neguan:

1. txanda: 2021eko abenduaren 27, 28, 29 eta 30a
2. txanda: 2022ko urtarrilaren 3, 4, 5 eta 7a

LANALDIA

Lanaldi zatitua

Hau izango da lanaldi efektiboa:

CAMPUSA	Lanaldi zatitua (goizez eta arratsalde)	Lanaldi jarraitua	Udaberriko eta neguko txandetako lan.	Udako lanaldia
Bizkaia	8:00	7:00	6:45	6:45
Éibar				
Alava				
Gipuzkoa	8:01			

Norberaren kontuetarako baimena eta norberaren gestioetarako lizentzia: Bizkaian, Eibarren eta Gipuzkoan 60:00 ordu, Araban (lanegun bat gutxiago) 52:30 ordu.

Lanaldi trinkoa

Hau izango da lanaldi efektiboa:

CAMPUSA	Lanaldi jarraitua	Udaberriko eta neguko txandetako lan.	Udako lanaldia
Alava	7:32	7:32	6:45
Bizkaia	7:29	7:29	
Gipuzkoa			
Éibar			

Norberaren kontuetarako baimena eta norberaren gestioetarako lizentzia: 45:00 ordu,

Lanaldi mistoa

Hau izango da lanaldi efektiboa:

CAMPUSA	Lanaldi zatitua (goizez eta arratsalde)	Lanaldi jarraitua	Udaberriko eta neguko txandetako lan.	Udako lanaldia
Bizkaia	8:17	7:00	6:45	6:45
Éibar				
Alava	8:26			
Gipuzkoa	8:19			

Norberaren kontuetarako baimena eta norberaren gestioetarako lizentzia: 45:00 ordu,

Ezohiko lanaldia zenbait lanpostutan

Ezohiko lanaldia daukaten lanpostuek ondorengo taulan agertzen den lanaldi efektiboa izango dute 2021. urtean:

IKASTEGIA / ZERBITZUA	LANPOSTUA	Lanaldia	ORDUTEGIA		
			Astelehenetik ostiralera	Larunbat a	Uda uztaila eta abuztua
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA. Elkano	Atezain nagusia	TS / MS	7:10	5:00 (1/4)	7:10
	Menpekoa				
BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA. Goi Mailako Ingeniaritza	Atezain nagusia	TS / MS	7:14	4:30 (1/6)	6:45
	Menpekoa				
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA. Abeltgia	Abeltegiko ofiziala	MF / TF	7:03	4:00 (1/4)	6:45
	Animaliategiko teknikaria				
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA. Sarriko	Atezain nagusia	TS / MS	7:04	5:45 (1/5)	7:04
	Menpekoa				
GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA. Eibar	Atezain nagusia	TS / MS	6:51	4:00 (1/2)	6:51
UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKA	Bibliotekako teknikari laguntzailea	EB*	7:27		6:45
ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	Campuseko bibliotekako zuzendari atxikia eta Unibertsitateko Bibliotekako arloko burua	NS	al.-ar.-og. (lanaldi zatitua)	5:00 (1/8)	maiatzaren 31tik irailaren 10era eta txandak
	Biblioteka zerbitzuaren arduraduna		7:48		
	Bibliotekako atalaren arduraduna		az.-ol. (lanaldi jarraitua)		
	Bibliotekako atalaren arduraduna	6:50		6:45	
	Bibliotekako laguntzailea	TS / MS	7:08	5:00 (1/4)	6:45
	Bibliotekako administrari laguntzailea				
Bibliotekako atalaren arduraduna					
Bibliotekako menpekoa					
Bibliotekako teknikari laguntzailea					
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	Campuseko bibliotekako zuzendari atxikia eta Unibertsitateko Bibliotekako arloko burua	NS	al.-ar.-og. (lanaldi zatitua)	5:00 (1/8)	maiatzaren 31tik irailaren 10era eta txandak
	Biblioteka zerbitzuaren arduraduna		7:49		
	Bibliotekako atalaren arduraduna		az.-ol. (lanaldi jarraitua)		
	Bibliotekako atalaren arduraduna	6:50		6:45	
	Bibliotekako laguntzailea	TS / MS	7:12	5:00 (1/5)	6:45
	Bibliotekako administrari laguntzailea				
Bibliotekako atalaren arduraduna					
Bibliotekako teknikari laguntzailea					

IKASTEGIA / ZERBITZUA	LANPOSTUA	Lanaldia	ORDUTEGIA		
			Astelehenetik ostiralera	Larunbat a	Uda uztaila eta abuztua
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA	Multimedia sistemetako teknikari espezialista	T	7:27		6:45
	Operadorea				
	Aholkularia				
	Telefonista	M / T	7:23		7:23
IKASTEGIAK / ZERBITZUAK	Atezain nagusia	M / T	7:27		6:45
	Menpekoa				
MIGUEL DE UNAMUNO IKASTETXE NAGUSIA	Garbiketa eta arropa ikuzketako langilea	M	7:27		6:45
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA. Korta eta Carlos Santamaria eraikinak*	Menpekoa	MS	7:01	6:00	7:01
BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA. Nautika eta Itsasontzi Makineria	Laborategiko teknikari espezialista	M	7:27		6:45
ODONTOLOGIA KLINIKA		M	7:27		6:45
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA eta ARABAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA. Medikuntzako Irakasgunea eta Elurreta ikasgelategia	Menpekoa	TS	6:02	5:00	6:02
PSIKOLOGIA FAKULTATEA	Ikastegiko mantentzailea	M	7:27		6:45
ARTE EDERREN FAKULTATEA	Multimedia sistemetako teknikari espezialista	T	7:27		6:45
FARMAZIA FAKULTATEA					
LETREN FAKULTATEA					
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA					
	Informatikako teknikari espezialista	T	7:27		6:45
GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA	Laborategiko teknikari espezialista	L3	Astelehenetik ostegunera (urt.-mar.): 10:00 or. Astelehenetik ostegunera (api.-abe.): 9:00 or. Ostiraletan (ekainetik irailera): 5:00 or. Eskolarik gabeko txandak: 6:45 or.		

*EB: Lanaldi zatitua (10:33tik 18:30era), bazkaltzeko 30 minuturekin.

** Korta eta Carlos Santamaria eraikinak: urtean 32 larunbatetan lan egiten du eta lan egin duen larunbataren osteko astelehena libre hartzen du.

***Elurreta ikasgelategia: 38 larunbatetan lan egiten du

Kasu espezifikoetarako lanaldi bereziak

Norberaren kontuetarako baimena eta norberaren gestioetarako lizentzia: Bizkaian, Eibarren eta Gipuzkoan 60:00 ordu, Araban (lanegun bat gutxiago) 52:30 ordu.